# BESTELAKO XEDAPENAK

## GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

## 4204

*35/2021 EBAZPENA, uztailaren 6koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita IVAP-Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren arteko prestakuntza arloko lankidetza-hitzarmena argitaratzea.*

Hitzarmen hori sinatu eta eman behar zaion publikotasuna emateko honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren artean prestakuntza arloan sinatutako lankidetza-hitzarmena. Honen eranskinean dago jasota testu hori.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 6a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JON IÑAKI URBINA GARCÍA DE VICUÑA.

# ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN UZTAILAREN 6KO 35/2021 EBAZPENARENA

# *ANEXO A LA RESOLUCIÓN 35/2021, DE 6 DE JULIO, DEL DIRECTOR DE LA SECRETARÍA DEL GOBIERNO Y DE RELACIONES CON EL PARLAMENTO*

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIAREN ETA HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN ARTEKO PRESTAKUNTZA ARLOKO HITZARMENA

CONVENIO EN MATERIA DE FORMACION ENTRE EL ORGANISMO AUTÓNOMO ACADEMIA VASCA DE POLICÍA Y EMERGENCIAS Y EL INSTITUTO VASCO DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

Gasteizen, 2021ko ekainaren 23an.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de junio de 2021.

HONAKO HAUEK HARTU DUTE PARTE:

INTERVIENEN:

Alde batetik, Andrés Zearreta Otazua jaunak, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusia.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia, 15/2012 Legeak, ekainaren 28koak, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzekoak sortu zuen, administrazio-izaerako organismo autonomo bezala eratuta eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari atxikita dago. 15/2012 Legearen 26.3 artikuluaren arabera, haren zuzendari nagusiari dagokio erakundearen ordezkaritza egikaritzea.

De una parte, Andrés Zearreta Otazua, Director General de la Academia Vasca de Policía y Emergencias, organismo autónomo de carácter administrativo, creado por Ley 15/2012, de 28 de junio, de Ordenación del Sistema de Seguridad Pública de Euskadi y adscrito al Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco, que ejerce la representación del organismo autónomo, en base a lo dispuesto en el artículo 26.3 de la Ley 15/2012 ya mencionada.

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Este documento es una representación del original disponible a través del **localizador** y la **sede electrónica** indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** eta **egoitza elektronikoaren** bidez eskuragarri dagoena.

**LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR:** J0D0Z-T2WCP-0PA3
**EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA:** https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
**SINATZAILE / FIRMANTE:** MARIA TERESA IRURETAGOYENA IBARGUREN | 2021/06/22 13:39:32
**SINATZAILE / FIRMANTE:** ANDRES ZEARRETA OTAZUA | 2021/06/22 15:56:14

Beste alde batetik, Maite Iruretagoiena Ibarguren andreak, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) zuzendaria. Herri Administrazioaren Euskal Erakundearen Araubide Juridikoari buruzko 1983ko uztailaren 27ko 16/1983 Legearen bidez sortutako erakunde autonomoa da IVAP, eta Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza eta Autogobernu Sailari atxikita dago. Zuzendariak erakundearen ordezkaritza egikaritzen du 16/1983 Legearan 12. Artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bi alderdiak bakoitza bere erakundearen izenean eta hura ordezkatuz agertu dira, eta hitzarmen hau formalizatzeko ahalmena aitortzen diote elkarri, sinetsita Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen artean lankidetza estua izateak onurak ekar ditzakeela bientzat, prestakuntza-arloan bi erakundeek esleituta dituzten zereginak betetzeko orduan. Hortaz,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:

De otra parte, Maite Iruretagoiena Ibarguren, Directora del Instituto Vasco de Administración Pública, Organismo Autónomo creado por Ley 16/1983, de 27 de julio, de Régimen Jurídico del Instituto Vasco de Administración Pública y adscrito al Departamento de Gobernanza y Autogobierno del Gobierno Vasco, que ejerce la representación del Instituto en base a lo dispuesto en el artículo 12 de la misma Ley.

Ambas partes comparecen en nombre y representación de las instituciones a las que, respectivamente, pertenecen y, de modo recíproco, se reconocen capacidad para formalizar el presente Convenio, estimando que una estrecha cooperación entre la Academia Vasca de Policía y Emergencias y el Instituto Vasco de Administración Pública puede proporcionar recíprocos beneficios en el cumplimiento de las funciones que en materia de formación ambas instituciones tienen encomendadas, por lo que,

EXPONEN:

HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

I.- Azaroaren 9ko 289/2010 Dekretuak Transferentzien Batzorde Mistoaren 2010eko urriaren 28ko Akordioa onartu zuen. Akordio horren arabera, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zitzaizkion lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren esparruan Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak burutzen zituen lan-arloko legeria betearazteko eginkizun eta zerbitzuak, azaroaren 5eko 1441/2010 Errege Dekretuak ezarritako baldintzetan.

II.– 15/2012 Legeak ondokoa xedatzen du 20. artikuluaren 2 eta 3 zenbakietan Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren xede eta helburuei buruz:

*2.– Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren helburua da herritarren segurtasuna lortzeko zerbitzu publikoak ematen jarduten diren edo parte hartzen duten pertsonek beharrezkoa den lanbide- heziketa eskuratzeko baldintzak eta bitartekoak sortzea, eta gaikuntza hori beste pertsona batzuei ere eskaintzea, baldin eta, segurtasun publikoko zerbitzuetakoak izan ez arren, interes profesionala badute edo beren*

I.- El Decreto 289/2010, de 9 de noviembre, aprobó el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias de 28 de octubre de 2010, sobre traspaso de funciones y servicios a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de ejecución de la legislación laboral en el ámbito del trabajo, el empleo y la formación profesional para el empleo, que realiza el Servicio Público de Empleo Estatal, en los términos establecidos por el Real Decreto 1441/2010, de 5 de noviembre.

II.– La Ley 15/2012 establece lo siguiente respecto a la finalidad y objeto de la Academia, en el artículo 20, números 2 y 3.

*2.– La finalidad de la Academia Vasca de Policía y Emergencias es crear las condiciones y medios para lograr que las personas que desarrollan su actividad o participan en la prestación de los servicios públicos dedicados a procurar la seguridad de la ciudadanía adquieran la formación profesional precisa, así como extender tal capacitación a otras personas que, sin pertenecer a los servicios de seguridad*

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

*jarduerak zerbitzu horien garapenean eragiten badu.*

*3.– Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren xedea da Gobernuak segurtasun publikoaren arlorako duen prestakuntza-, hautaketa-, ikerketa- eta berrikuntza-politika gauzatzea, hala Euskal Herriko Poliziari dagozkion arloetan nola babes zibilari eta larrialdi-zerbitzuei dagozkienetan. Horretarako, Euskadiko erakunde erkideei dagozkien eskumenen eremuaren barruan eta lege honetan ezarritakoarekin bat etorriz Euskal Autonomia Erkidegoko segurtasun publikoko politika gauzatzen jarduten edo esku hartzen duten giza baliabideen prestakuntza eta, hala dagokionean, hautaketa planifikatu eta kudeatu beharko ditu.*

III.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari honako helburu hau esleitzen dio, besteak beste, erakundea bera sortu zuen 16/1983 Legeak: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta beste edozein herri-administraziok edo araubide juridikok bere esku utz dezakeen funtzionarioen eta

*pública, tengan interés profesional o cuya actividad incida en el desarrollo de los mismos.*

*3.– La Academia Vasca de Policía y Emergencias tiene por objeto ejecutar la política formativa, de selección y de investigación e innovación del Gobierno en la materia de seguridad pública, tanto en las áreas correspondientes a la Policía del País Vasco como en las de protección civil y emergencias. Para ello, dentro del ámbito competencial correspondiente a las instituciones comunes del País Vasco y de conformidad con lo establecido en la presente ley, deberá planificar y gestionar la formación y, cuando proceda, la selección de los recursos humanos que se dedican o intervienen en la ejecución de la política de seguridad pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.*

III.– El Instituto Vasco de Administración Pública tiene atribuidos, por la Ley 16/1983 que determinó su creación, entre otros fines, la formación y perfeccionamiento de los funcionarios y contratados de la Administración Autónoma del País Vasco, o que cualquier otra Administración Pública o

HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

kontratudunen prestakuntza eta hobekuntza.

IV.– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen egitura eta egitekoak arautzen dituen 133/2021 Dekretuak, maiatzaren 4koak ezartzen duenez, IVAPeko Prestakuntza Zerbitzuak, dituen helburuak betetzeko, eginkizun hauek izango ditu:

*a) Lanpostuan hasteko, lanpostua betetzeko eta karrera profesionalerako ikastaro, mintegi eta era guztietako prestakuntza-jardueren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta administrazio erakundeetako langileen prestakuntza taxutu, kudeatu eta ebaluatzea, prestakuntzaren arloan indarrean den araudiarekin bat.*

V.– Euskal Autonomia Erkidegoko 2021. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen 1/2021 Legeak, zuzkidurak kontsignatzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan lan egiten duten pertsonen prestakuntza finantzatzeko. Zuzkidura horiek isla dute Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) aurrekontuan. Aurrekontu honek Polizia

el ordenamiento jurídico pudiere encomendarle.

IV.– El Decreto 133/2021, de 4 de mayo, por el que se regula la estructura y funciones del Instituto Vasco de Administración Pública establece que, para el cumplimiento de su finalidad, el Servicio de Formación del IVAP desarrollará las siguientes funciones:

*a) Diseñar, gestionar y evaluar, cuando corresponda, los planes de formación de entrada, para el puesto y para la carrera profesional, del personal al servicio de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Entes Institucionales, de acuerdo con la normativa vigente en materia de formación.*

V.– La Ley 1/2021, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2021, consigna partidas para financiar la formación de las personas empleadas en las diferentes Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Estas partidas tienen su reflejo en el presupuesto del Instituto Vasco de

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

eta Larrialdietako Euskal Akademia onuradun duen zuzkidura bat kontsignatzen du gehienezko kopurua adierazita.

Administración Pública que contiene una partida consignada con cuantía máxima, que tiene como destinatario al organismo autónomo Academia Vasca de Policía y Emergencias.

VI.– 1/2021 Legearen Bederatzigarren Xedapen Gehigarriak xedatzen duenez, Euskal administrazio publikoetako enplegatuen enplegurako prestakuntzarako IVAP organismo autonomoaren aurrekontuetan agertzen diren kredituak, organismo horrek kudeatuko ditu, kasuan kasuko deialdien bidez.

VI.– La Disposición Adicional Novena de la Ley 1/2021 establece que la gestión de los créditos que para la formación para el empleo de las personas empleadas en las administraciones públicas vascas figuran en los presupuestos del organismo autónomo IVAP serán gestionados por éste a través de las convocatorias correspondientes.

VII.– Bi alderdiek, nork bere ahalmenak baliatuz, eta beren eskumeneko gaietan lankidetzan aritzeak kudeaketa publikoaren efizientzia hobetuko duela iritzita, hitzarmen hau izenpetzea erabaki dute, honako klausula hauei lotuta.

VII.– Ambas partes, en el ejercicio de sus respectivas facultades y entendiendo que la colaboración en las materias de su competencia mejorará la eficiencia de la gestión pública, han acordado suscribir el presente Convenio que llevan a efecto con sujeción a las siguientes.

KLAUSULAK

CLÁUSULAS

**Lehenengoa.- Hitzarmenaren xedea.**

Hitzarmen honen bidez, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak, 2021ko ekitaldian, enplegatu

**Primera.– Objeto del Convenio**.

Por el presente Convenio se regula la financiación, en el ámbito de la formación para el empleo, de los planes o programas realizados durante el

HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

publikoentzat eta enplegurako prestakuntzaren baitan burutzen dituen prestakuntza-plan edo –programen finantzazioa arautzen da, prestakuntza hori Akademiaren eskumenekoa denean.

Prestakuntza-plan edo -programek, berariazko prestakuntza-eskaintzaz gain, honako ekintza hauetakoren bat edo batzuk jaso ahal izango dituzte:

– Prestakuntza-edukiak diseinatzea eta/edo prestatzea.

– Ikaskuntzako sareak ezartzea, aldi baterakoak nahiz iraunkorrak.

– Irakaskuntzako materiala diseinatzea, prestatzea eta argitaratzea, prestakuntzan erabiltzen den edozein euskarritan.

– Aprobetxamenduaren, transferentziaren edo eraginaren ebaluazioarekin lotutako azterketak, erakundeak garatutako prestakuntzari buruzkoak.

Programatzen diren prestakuntza ekintzetako bat, gutxienez, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoa izan behar da.

ejercicio 2021 por el organismo autónomo Academia Vasca de Policía y Emergencias destinados a empleados y empleadas públicas, cuando esa formación sea competencia de la Academia.

Los planes o programas de formación podrán incluir, además de la oferta formativa propiamente dicha, alguna o algunas de las siguientes acciones:

– El diseño y/o elaboración de contenidos formativos.

– El establecimiento de redes de aprendizaje temporales o permanentes.

– El diseño, elaboración y publicación de material docente en cualquiera de los soportes utilizados en formación.

– Estudios relacionados con la evaluación del aprovechamiento, transferencia o impacto referidos a la formación desarrollada por la entidad.

Al menos una de las acciones formativas programadas deberá ser sobre materias de igualdad de mujeres y hombres.

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Ez dira inola ere finantzatuko, plan edo programetan aurreikusitako prestakuntza-ekintzetan parte hartzen duten pertsonen joan-etorri, mantenu-, egonaldi- eta ordezkapen-gastuak.

En ningún caso serán financiados los gastos de desplazamiento, manutención, estancia o sustitución de las personas que participen en las diferentes acciones formativas previstas en los planes o programas.

**Bigarrena.- Definizioak.**

Hitzarmen honetan ezarritakoa interpretatze eta aplikatze aldera, betiere kontuan izango dira honako definizio hauek:

a) Prestakuntza Beharren Analisia da pertsona batek lanpostua behar bezala betetzeko jakin beharko lukeenaren eta dakienaren arteko aldearen analisia.

b) Prestakuntza-plan edo -programatzat hartzen da prestakuntza-ekintzen multzo antolatu bat, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako langileen prestakuntza planifikatu eta antolatzeko irizpide orokorrei buruzkoa.30/2008 Dekretuan ezarritakoaren arabera (EHAA, 2008ko otsailaren 27koa).

**Segunda.– Definiciones**.

A los efectos de la interpretación y aplicación de lo establecido en este convenio, habrán de tenerse en cuenta las siguientes definiciones:

a) El Diagnostico de Necesidades Formativas se entiende como el análisis para la detección de la distancia entre lo que una persona conoce y sabe hacer y lo que debería conocer y saber hacer para el adecuado desempeño de su puesto de trabajo.

b) Se entiende por Plan o Programa formativo un conjunto ordenado de acciones formativas, según lo establecido en el Decreto 30/2008, de 19 de febrero, de criterios generales de la planificación y organización de la formación del personal de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus Organismos Autónomos. (BOPV, de 27 de febrero de 2008).

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

c) Prestakuntza-ekintzatzat hartzen da, oro har, langileei alderdi, eremu edo ezagutza-arlo jakin bati buruzko prestakuntza ematera bideratutako eragiketen multzoa. Prestakuntza-ekintzak ikaskuntzakoak edo informazioak izan ahal izango dira, otsailaren 19ko 30/2008 Dekretuaren 4. artikuluan ezartzen denaren arabera.

**Hirugarrena.- Finantza-zuzkidura.**

Zuzkidurak, gehienez, 193.661 euroko zenbatekoa izango du, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko aurrekontuan hitzarmen honen xederako ezartzen duen bezala 2021ko ekitaldirako. Sekzioa 43, programa 1216, zerbitzua 02, azpikontzeptua 41201, partida 001, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako prestakuntza-planak

**Laugarrena.- Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren betebeharrak.**

Hitzarmen honen xedeak burutze aldera, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia organismo autonomoak ondoko betebeharrak egiten ditu bere:

c) Por acción formativa, en general, se entiende el conjunto de operaciones destinadas a la formación del personal en un determinado aspecto, dominio o área de conocimiento. Las acciones formativas podrán ser de aprendizaje o de información, según se establece en el artículo 4 del Decreto 30/2008, de 19 de febrero.

**Tercera. – Dotación financiera**.

La dotación tendrá un importe máximo de 193.661 euros según lo establecido para el objeto de este convenio en los Presupuestos del Instituto Vasco de Administración Pública para el ejercicio 2021. Sección 43, programa 1216, Servicio 02, subconcepto 41201, partida 001, Planes formación Academia Vasca de Policía y Emergencias

**Cuarta.– Obligaciones de la Academia Vasca de Policía y Emergencias.**

Para la consecución de los fines de este convenio, el organismo autónomo Academia Vasca de Policía y Emergencias asume las siguientes obligaciones:

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

a) IVAPi behar bezala justifikatzea baldintzak eta betebeharrak bete dituela, bai eta finantzatzeko den plan, programa edo jarduera egin duela ere.

b) IVAPek egingo dituen egiaztapenen mende egotea. Erakunde publiko izaerak dakartzan kontrol jardueren mende ere egon beharko du.

c) IVAPi aditzera ematea beste zernahi administrazio, erakunde publiko edo erakunde pribaturen batek xede bera duten diru-laguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eman dizkien.

d) Zuzkidura esleitzean kontuan izan zen dena delako egoera objektiboa edo subjektiboa aldatu baldin bada, horren berri ematea IVAPi.

Esleipena egiteko kontuan hartutako inguruabarretako bat aldatzen bada, gerta liteke horren ondorioz esleipen ebazpena ere aldatzea. Era berean, ebazpen hori eraldatzea eragin dezake beste administrazio batzuen edo erakunde publiko zein pribatu batzuen diru-laguntzak eskuratzeak eta, edozein kasutan, xede bera betetzeko beste zernahi diru-sarrera edo baliabide jasotzeak; baldin eta, ebazpen honen

a) Justificar ante el IVAP el cumplimiento de los requisitos y condiciones, así como la ejecución del plan, programa o actividad objeto de financiación.

b) Someterse a las actuaciones de comprobación a efectuar por el IVAP, y a aquellas otras de control derivadas de su condición de ente público.

c) Comunicar al IVAP la obtención de subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes, tanto públicos como privados.

d) Comunicar al IVAP la modificación de cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva que hubiese sido tenida en cuenta para la adjudicación de la dotación.

La alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la adjudicación podrá dar lugar a la modificación de la resolución de adjudicación. Asimismo, podrán dar lugar a la alteración de dicha resolución la obtención de ayudas o subvenciones otorgadas por otras administraciones o entes públicos o privados y, en su caso, de cualesquiera otros ingresos o recursos para la misma finalidad que supongan, conjuntamente

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

babesean emandako finantzazioarekin batera, finantzatu daitekeen edozein kontzepturen finantzaketan, kostuaren guztizkoaren gainetik dagoen zenbatekoa hartzen badute.

**Bosgarrena.- IVAPen betebeharrak**.

a) Ezarritako zuzkiduraren transferentzia izapidetzea hitzarmen hau sinatutakoan.

b) Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin elkarlanean aritzea, prestakuntza-beharren analisi edo diagnostikoak efizientziarik handienarekin egin daitezen.

c) Akademiak aurkeztutako dokumentazioa aztertzea eta ebazpena ematea, zazpigarren klausularen azken paragrafoan ezarritakoa ere aintzat harturik.

**Seigarrena.- Finantzazioaren izapidetza.**

Hitzarmena sinatutakoan, hirugarren klausulan ezarritako zuzkidura osoaren transferentzia izapidetuko da.

con la financiación otorgada al amparo de esta resolución, una financiación de cualquier concepto financiable en cuantía superior al total de su coste.

**Quinta. - Obligaciones del IVAP.**

a) Tramitar la transferencia de la dotación establecida una vez firmado el presente convenio.

b) Colaborar con la Academia Vasca de Policía y Emergencias en la elaboración de instrumentos que le permitan abordar con la máxima eficiencia los análisis o diagnósticos de necesidades formativas.

c) Examinar la documentación presentada por la Academia y dictar resolución, sin perjuicio de lo establecido en el último párrafo de la cláusula séptima.

**Sexta. – Tramitación de la financiación**.

Una vez firmado el convenio, se tramitará la transferencia del total de la dotación establecida en la cláusula tercera.

HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

2021ko azaroaren 30a baino lehen, Akademiak ondoko dokumentazioa emango dio IVAPi:

a) Finantzatzeko diren prestakuntza-plan edo programak. Hauek, gutxienez, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren otsailaren 19ko 30/2008 Dekretuan ezarritako edukia (EHAA, 2008ko otsailaren 27koa).

b) Prestakuntza planaren oinarri den Prestakuntza Beharren Analisia, horretarako erabili den metodologia azalduta. Analisi hori, IVAPek zehaztu duen Prestakuntza Beharren Analisiaren metodologian oinarritu daiteke. Era berean, analisitik ondorioztatzen diren prestakuntza lehentasunak jasoko dira.

c) Prestakuntza-eskaintzarekin batera hau erantsi behar da gutxienez:

– Ekintzaren edo ekintzen deskribapena.

– Beharrizanaren edo komenigarritasunaren justifikazioa.

– Ekintzaren edo ekintzen kostua.

Antes del 30 de noviembre de 2021, la Academia entregará al IVAP la siguiente documentación:

a) Los planes o programas de formación a financiar, que tendrán, como mínimo, el contenido establecido en el Decreto 30/2008, de 19 de febrero del Departamento de Hacienda y Administración Pública del Gobierno Vasco (BOPV de 27 de febrero de 2008).

b) Diagnóstico de Necesidades Formativas en que se sustenta el plan de formación, con explicación de la metodología utilizada en su elaboración. Dicho diagnóstico podrá basarse en las metodologías del Diagnóstico de Necesidades Formativas determinada por el IVAP. Deberán presentarse asimismo las conclusiones formativas prioritarias.

c) Junto a la oferta formativa deberá incluirse como mínimo:

– Descripción de la acción o acciones.

– Justificación de la necesidad o conveniencia.

– Coste de la acción o acciones.

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Halaber, planaren edo programaren betearazpen-maila justifikatzeko Akademiak hau aurkeztu beharko du:

– Aurkeztutako prestakuntza-planaren edo -programaren betearazpenari buruzko txostena.

– Erakundeak burututako prestakuntza-plan edo -programaren kostuari buruzko ziurtagiria, erakundeko barne-fiskalizazioaren arduradunak izenpetua.

– Ziurtagiria, ondokoa adierazten duena: planak edo programak ez duela jasotzen, hitzarmen honetan esleitutako kopuruarekin batera, gehiegizko finantzaketa dakarren laguntzarik, kostuaren edo bete den planaren edo programaren zatiari dagokion kostuaren gainetik dagoen zenbateko batean.

Egindako justifikaziotik ondorioztatzen bada prestakuntza-plana edo -programa ez dela bete edo zati batean bakarrik bete dela, ondorio den likidazioa egingo da, planaren betearazpen-maila eta kontura jasotako diru-kopurua kontuan hartuta. Gertatuko balitz Akademiak azkenean egokituko zaion zenbatekoen gainetik dauden kopuru batzuk jaso dituela, dagozkion kontabilitate-eragiketak

Asimismo, a fin de justificar el grado de ejecución del plan o programa, la Academia deberá aportar, en el mismo plazo, la siguiente documentación:

– Memoria relativa a la ejecución del plan o programa formativo presentado.

– Certificación relativa al coste del plan o programa de formación ejecutado por la entidad. Esta certificación deberá ir firmada por la persona responsable de la fiscalización interna de la entidad.

– Certificación de que el plan o programa no recibe ayudas, del tipo que fueren, que sumada a la cantidad adjudicada conforme a este convenio, supongan una financiación del mismo en cuantía superior a su coste o al coste de la parte de plan o programa que se ha ejecutado.

Si de la justificación realizada, se dedujera que el plan o programa de formación no se ha ejecutado o se ha ejecutado únicamente en parte, se procederá a realizar la liquidación que resulte teniendo en cuenta el grado de ejecución alcanzado. Si resultare que la Academia ha recibido cuantías superiores a las que finalmente le han de corresponder, se procederá a la

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ezeztatuko dira behar ez den bezala jaso den kopururaino.

Akademiak bitarteko elektronikoz egin behar ditu prozedura honetako izapide guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren bidez, Nire karpeta gunean.

Prozedura honetako izapide guztiak bitarteko elektronikoz egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak onartzen duen edozein ziurtagiri elektroniko erabili ahal izango du.

Akademiak Ordezkarien erregistroan izendatuko ditu erakundearen izenean jardungo duten pertsona edo pertsonak, hitzarmen honen izapidetza eta betearazte ondorioetarako.

Akademiak euskaraz edo gaztelaniaz aurkez dezake dokumentazio guztia. Prozeduran zehar, erakundeak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen erabilera normalizatzeari

anulación de las operaciones contables correspondientes por el importe de las cantidades indebidamente percibidas.

La Academia realizará todos los trámites de este procedimiento a través de medios telemáticos en la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en el apartado Mi Carpeta.

Para poder realizar todos los trámites de este procedimiento a través de los medios telemáticos, se podrán utilizar cualquiera de los certificados electrónicos admitidos por la Administración Pública de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Academia designará en el Registro de Representantes a la persona o personas que actuarán en nombre de dicha entidad a los efectos de la tramitación y ejecución del presente convenio.

La Academia podrá presentar toda la documentación en euskera o castellano. A lo largo del procedimiento, se utilizará el idioma elegido por la entidad, tal y como se establece en los artículos 5.2.a)

buruzko azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Aurkeztu behar diren dokumentuek klausula hauetan ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, edo haien edukia nahikoa ez bada, Akademiari jakinaraziko zaio hamar egun dituela eskabidea osatzeko edo akatsak zuzentzeko, eta adieraziko zaio, horrela egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta Administrazioa behartuta dagoela eskaera horri buruzko ebazpen adierazia ematera, bai eta jakinaraztera ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 68.1 eta 21.1 artikuluetan xedatutakoarekin bat etorrita.

**Zazpigarrena.- Zuzkidura esleitzea.**

Zuzkiduraren esleipena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpen baten bitartez egingo da. Ebazpen horrek esleitutako diru-kopurua zehaztuko du. Kopuru horri dagozkion kontzeptuak ere adieraziko dira. Ebazpen hau egoitza elektronikoaren bidez jakinaraziko da ematen den egunean. Euskal Herriko

y 6.1 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del Euskera.

Si los documentos aportados no reunieran todos los requisitos establecidos en las presentes cláusulas, o su contenido resultare insuficiente, se requerirá a la Academia para que en el plazo de 10 días complete o subsane las deficiencias, con indicación de que si no lo hiciere se le tendrá por desistida de su petición, estando obligada la Administración a dictar resolución expresa sobre esta solicitud, así como a notificarla, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 68.1 y 21.1 de la Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

**Séptima. – Adjudicación de la dotación**.

La adjudicación de la dotación se realizará mediante resolución de la Directora del Instituto Vasco de Administración Pública que contendrá la cantidad asignada, con indicación de los conceptos a que se refiera. Esta Resolución se notificará, en la fecha de su dictado, a través de la sede

Agintaritzaren Aldizkarian ere argitaratuko da.

electrónica. También se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco.

Finantzatutako kopuruak ezin izango du gainditu prestakuntza-plan, -programa edo jardueraren kostuaren ehuneko berrogeita hamar.

El importe financiado no podrá superar el cincuenta por ciento del coste del plan, programa o actividad de formación.

**Zortzigarrena.- Esleitutako finantzazioari uko egitea.**

Akademiak uko egin diezaioke, osorik edo partez, esleitu zaion zuzkidurari. Uko-egitea idatziz jakinarazi beharko da, eta esleipenetik eratorritako eskubide ekonomiko guztiak edo uko-egiteari dagokion zuzkiduraren zatiari dagozkion eskubideak galtzea ekarriko du. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, betiere, onartu egingo du aurkeztutako uko-egitea.

**Octava.– Renuncia a la financiación adjudicada.**

La Academia podrá presentar renuncia total o parcial a la dotación que le haya sido adjudicada. La renuncia deberá notificarse por escrito y supondrá la pérdida de todos los derechos económicos derivados de la adjudicación, o de los derechos correspondientes a la parte de la dotación a que se refiere la renuncia. El Instituto Vasco de Administración Pública aceptará, en todo caso, la renuncia presentada.

**Bederatzigarrena.- Itzultzea.**

Akademiak hitzarmen honetan ezartzen diren baldintzak ez betetzeak, zuzkiduraren transferentzia gauzatu duten kontabilitate-eragiketak, osorik edo zati batean deuseztatzea ekarriko luke.

**Novena. – Reintegro.**

El incumplimiento de las cláusulas establecidas en el presente convenio por parte de la Academia dará lugar a la anulación, total o parcial, de las operaciones contables que hubiesen materializado la transferencia de la dotación.

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

**Hamargarrena.- Administrazio-isiltasuna.**

Eskabidea aurkezten denetik hiru hilabete igarota Interneteko helbidean esleipen- ebazpenik argitaratu ez bada, Akademiak ezetsitzat jo ahal izango du bere eskaera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25.1. a artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita.

**Décima.– Silencio administrativo.**

Si transcurridos tres meses desde la presentación de la documentación no se hubiera publicado, en la dirección electrónica de referencia, resolución alguna de adjudicación, la Academia podrá entender desestimada su solicitud de conformidad con lo establecido en el artículo 25.1. a de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

**Hamaikagarrena.- Jarraipen-batzordea.**

Hitzarmena sinatzen duten erakundeek jarraipen-batzorde bat sortuko dute, haietako bakoitzak izendatutako bina ordezkarik osatua, hitzarmena ondo betetzen dela begiratze aldera. Berariazko akordiorik ezean, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko ordezkarietako bat izango da batzorde horren buru, eta idazkari, aldiz, Akademiak izendatutako ordezkarietako bat.

Batzordeak eginkizun hauek izango ditu:

**Undécima.– Comisión de Seguimiento.**

Las instituciones firmantes del presente Convenio crearán una Comisión de Seguimiento, formada por dos representantes designados por cada una de ellas, para la supervisión del buen cumplimiento del mismo. En defecto de acuerdo específico al respecto, la Presidencia de dicha Comisión será asumida por uno de los representantes del Instituto Vasco de Administración Pública y su Secretaría por uno de los representantes designados por la Academia.

Dicha Comisión desempeñará las siguientes funciones:

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

a) Hitzarmen honetan aurreikusitako ekintzen segimendua egitea; elkarri informatzea eta hartutako konpromisoak egoki betetzea ahalbidetu dezaketen irizpideak eta moduak zehaztuta.

a) Llevar a cabo el seguimiento de la normal ejecución de las actuaciones previstas en el presente Convenio, determinando los criterios y modos para posibilitar la mutua información y adecuado cumplimiento de los compromisos respectivos.

b) Hitzarmenak interpretazio- edo exekuzio-arazorik izanez gero, konpontzen ahalegintzea.

b) Procurar la resolución de los problemas de interpretación y de ejecución que pueda plantear este Convenio.

Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, jarduketei bide egokia emateko behar den guztietan bilduko da batzordea, alderdietako edozeinek hala proposatuta. Batzordearen bileren bertaratze- quorumak kide guztiak agertzea eskatzen du, eta aho batez hartuko dituzte kideek erabakiak.

Durante la vigencia de este Convenio y a propuesta de cualquiera de las partes, la Comisión se reunirá siempre que lo requiera la buena marcha de las actuaciones. El quórum de asistencia a las sesiones de la Comisión requerirá la presencia de todos sus miembros y la adopción de acuerdos será por unanimidad de los mismos.

Hitzarmen honetan Jarraipen Batzordearentzat espresuki jasotzen ez diren gaietan, 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, atariko tituluaren II. kapituluaren hirugarren atalean arautzen duen kide anitzeko organoen araubidea aplikatuko da.

En lo no previsto expresamente en este Convenio para la Comisión de Seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado en la sección 3.ª del Capítulo II del Título preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

**Hamabigarrena.- Araubide juridikoa.**

**Duodécima.– Régimen Jurídico.**

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hitzarmen honek administrazio-izaera du eta aplika dakiokeen antolamendu juridikoaren bidez arautuko da Hitzarmenaren interpretazioa eta garapena; zehazki, 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, xedatutakoaren arabera.

El presente Convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico administrativo aplicable, en particular por lo dispuesto en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Administrazio publikoen kontratuei buruzko legeriaren aplikagarritasunari dagokionez, baztertuta geratzen da hura, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, 6.1 artikuluan xedatzen duenaren arabera.

Con respecto a la aplicabilidad de la legislación de contratos de las Administraciones Públicas, la misma queda excluida, de conformidad con el artículo 6.1 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

Hitzarmen hau sinatzeak ez dakar esku hartzen duten alderdiek beren eskumenei uko egitea edo eskumen horiek aldatzea, hartzen dituzten konpromisoei dagozkien erantzukizunak bakarrik egiten dituzte bere.

La firma de este Convenio no supone renuncia ni alteración de las competencias de las partes intervinientes, que asumen únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contraen en virtud del mismo.

**Hamahirugarrena.- Izaera pertsonaleko datuen babesa.**

Hitzarmen honen egikaritza kudeatzeko beharrezkoak izan litezkeen datu pertsonalak, indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera erabiltzeko konpromisoa hartzen dute

**Decimotercera.– Protección de datos de carácter personal.**

Ambas partes se comprometen a tratar conforme a lo dispuesto en la normativa vigente los datos personales que fuesen necesarios para gestionar la ejecución del presente convenio. Los/as titulares de

HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

alderdi biek. Tratatzen diren datuen titularrek informazioa jasoko dute tratamenduari buruz, bai eta datuak eskuratu, zuzendu, ezeztatu eta tratamenduaren aurka egiteko eskubideen egikaritzari buruz ere.

IVAPi dagokionez, hitzarmen honetatik sortutako lankidetza-ekintzetan jasotako datu pertsonalak erakunde horrek antolatutako prestakuntza eta hobekuntza izeneko tratamenduan sartuko dira, eta lankidetza-jarduera horiek kudeatzeko baino ez dira erabiliko. Tratatzen diren datu pertsonalen titularrak datuok eskuratu, zuzendu, ezeztatu eta tratamenduaren aurka egiteko eskubideaz balia daitezke, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendariaren aurrean.

**Hamalaugarrena.- Hitzarmenaren indarraldia.**

Hitzarmen honek sinatzen den egunetik 2021ko abenduaren 31ra bitartean izango du eragina, hurrengo klausulan hitzarmena iraungitzeko ezarritako arrazoiren bat tarteko ez bada.

**Hamabosgarrena.- Hitzarmena iraungitzea.**

los datos tratados serán informados del tratamiento, así como del ejercicio de los derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y otros reconocidos legalmente.

En lo que respecta al IVAP, los datos personales recogidos en las actividades de colaboración derivadas de este convenio, se incorporarán al tratamiento formación y perfeccionamiento, y su uso se limitará a la gestión de esas actividades de colaboración. Las personas titulares de los datos personales objeto de tratamiento podrán ejercer sus derechos de acceso, rectificación cancelación y oposición ante la Directora del Instituto Vasco de Administración Pública.

**Decimocuarta.– Vigencia del Convenio.**

El presente Convenio surtirá efectos desde el día de su firma hasta el 31 de diciembre de 2021, salvo que medie alguna causa de resolución de las previstas en la cláusula siguiente.

**Decimoquinta.– Extinción del Convenio.**

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Hitzarmen hau arrazoi hauengatik suntsitu ahal izango da:

1.– Alderdietako batek hitzarmenaren amaiera iragartzea, idazki bidez, hiru hileko aurrerapenarekin.

2.– Bi alderdiak hitzarmena bertan behera uzteko ados egotea.

3.– Hitzarmeneko klausularen bat ez betetzea.

Sinatzaileek azaldu eta hitzartutako guztiarekin ados daudela adierazten dute, eta, dauzkaten eskumenez baliatuz, hitzarmen hau sinatzen dute, bi aletan, goian adierazitako lekuan eta datan.

El presente Convenio podrá ser resuelto por las siguientes causas:

1.– Denuncia de cualquiera de las partes formalizada, por escrito, con tres meses de antelación.

2 - Mutuo acuerdo de las partes.

3.– Por incumplimiento de cualquiera de las cláusulas del convenio

De conformidad con todo lo expuesto y convenido, en el ejercicio de las atribuciones de que son titulares los firmantes, suscriben el presente Convenio, por duplicado ejemplar, en el lugar y fecha arriba indicados.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusia
El Director General de la Academia Vasca de Policía y Emergencias.
ANDRÉS ZEARRETA OTAZUA

IVAPeko idazkari nagusia / Secretario General del IVAP
MAITE IRURETAGOIENA IBARGUREN
IVAPeko Zuzendaria.

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO